

KONPETENTZIEI EKARPENAK

1. Komunikazio linguistikorako konpetentzia

Ulertu eta atera behar den informazioa testu batetik, edota ahozko komunikazioetatik arazo bat ebazteko. Entzun edo irakurtako hitzen egokitasuna kritikatu. Modu koherentean, zehaztasunez eta argitasunez adierazi eta defendatu egindako aukerak eta erabilitako estrategiak.

2. Matematika

Erabili numerazio sistema hamartarra eta beraien arteko eragiketak, bere erabilgarritasuna baloratuz zenbaki oso handiak eta oso txikiak adierazteko garaian. Ulertu biderkaduraren eta zatiduraren beharra eta bere aplikazioa problemak ebazteko. Ulertu zenbaki negatiboen esanahia, baita ere zenbaki zatikiarren eta portzentaia.

3. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzia

Objetuan kantitatea eta neurriak modelatzeko zenbakien erabilgarritasuna ohartarazi. Zenbait portaera fisikoei zenbaki negatiboei esleitu. Mundu fisikoa deskribatzeko zenbakiak duten garrantziaz ohartu.

4. Konpetentzi digitala

Aplikazio informatikoak eta kalkulagailuak erabili, Arbela Digital Interaktiboez gain. Emaitzen koherentzia mentalki estimatu, eta datuak sartzeko garaian kontu handia jarri.

5. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia

Interpretatu zenbakizko informazioa komunikazioaren beharrezko zatia bezala, bai igorle bai hartzaile bezala. Zenbait eguneroko egoerari elkartu ikur positiboak eta negatiboak (joan eta etorri, igo eta jeitsi, erosi eta saldu, etb.). Zenbait neurri estimatu, horretarako eguneroko neurriak erabiliz.

6. Konpetentzia kulturala eta artistikoa

Zenbakien eta beraien arteko jatorria ezagutu, baita ere beraien beharra zibilizazioen garapenerako. Zenbait adierazpen artistikoetan ereduak antzeman, hala nola nota musikalak, irudi geometrikoak, etab.

7. Ikasten ikasi

Zenbaki mulzo desberdinen beharraz egoera anitzetan ikertu. Aurkitu egoera aldagarriak, eta baloratu ikasitakoa ezagera berriak ikasteko garairako.

8. Norberaren autonomia eta ekimenerako kompetentzia

Emaitzen koherentzia kritikatu, eta iraunkor izan emaitzen bilakaeran. Arazoei aurre egiteko prozedura propioak eraiki. Erabaki egoera bakoitzean zer nolako prozedurak erabili, baita ere antzeman irtenbide gabeko egoerak, arazoari aurre egiteko beste ikuspuntu batetik.